

Herritar agurgarria:

Hondakin organikoak etxeko hondakinen %40 dira. Hori dela eta, materia organikoa birziklatzeak, ekintza xumea dirudien arren, eragin handia du.

Mendialdea mankomunitatea osatzen dugun herrietan (Leitza, Areso, Lekunberri, Larraun, Goizueta eta Arano) auzo konpostajea parte hartzen duten herritarrei esker, beraien hondar organikoak (sukaldekoak, hostoak,...) murrizten ari dira horiekin konposta lortuz, hau da, ongarri naturala.

Lekunberriko auzoko konpostajea

Orain dela bi urte **Lekunberrin auzoko konpostajea egiten hasi ginen**. Ilusio handiz ekin genion denok proiektu honi baina arrazoi ezberdinengatik, tartean mankomunitatea eta udalaren hutsegiteak, ez dugu nahi genuen garapena lortu. Hori dela eta, gaia bultzatu nahian, Lekunberriko toki ezberdinetan bilera informatiboak egitea pentsatzen dugu Lekunberriko udala eta mendialdea mankomunitateak biek elkarrekin, zuen kexa eta iradokizunak jaso ahal izateko eta konposta gaiari astindu bat emateko. Konposta modu egoki batean nola egin erakusteko ere baliatuko dira bilera hauek.

Konposta egiteko guneak birkokatzea erabaki dugu eta lehengoak bertan behera geldituko dira. Aurrerago gehiago ere jarriko diren arren, momentuz jarriko diren gune berriak ondorengoak dira:

1. Iturritak, 3. kalea (Euskalduna tabernaren atzealdean)
2. Artzanegi kalea (pilotalekuaren inguruan)
3. Zintzar kalea (hilerriko jolas parkearen parean)

Bilerak ondorengo egun eta ordutan egingo dira:

Urtarrilak 24:

1. Gunea: 17'30etan.
2. Gunea: 18'30etan.
3. Gunea: 19'30etan.

Urtarrilak 25:

1. Gunea: 11'00etan.
2. Gunea: 17'30etan.
3. Gunea: 18'30etan.

Guztira 6 bilera egingo direnez, ongi datorkizuen bilerara etortzeko deia egiten dizuegu Lekunberriko Udalak eta Mendialdea mankomunitateak.

**ATERA IEZAIOZU BARNEAN DARAMAN
KONPOSTA!**